

45 urte klubari lotuta

Sergio Gonzalez 'Kuki'





INGENIARITZA
DUALAREN ESKOLA
ESCUELA DE
INGENIERIA DUAL

Gure lantaldera batu nahi?

*Bidali zure proposamena
uztailaren 18a baino lehen.*

Lan Eskaintza

INGENIARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA

Irakatsi · Ikertu · Proiektuak garatu



IMH Campus
Azkue auzoa, 1· 20870
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

SANBARTOLOMEETAKO NERABEEN EGUNEKO BAZKARIA

DBH1-DBH4 BITARTEKO NERABEENTZAT ABUZTUAK 30



- Parte hartzea doakoa da. Bazkaria etxetik ekarri beharko duzu, eta edaria, postrea eta kamiseta guk emango dizkizugu.
- Abuztuaren 24an Nerabeen Eguneko kamisetak banatuko dira. Kamiseta izateko izen emate galdetegia bete beharko duzu.
- Abuztuaren 30ean 13:00etan elkartuko gara elizako atarian eta ardurak banatuko dira.
- 15:30ean KITZIKIren kontzertua izango da Kalegoen Plazan.



IZENA EMATEKO: www.elgoibarkoizarra.eus / elgoibar.eus

Osasun gida



RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elibar

677 551 850



fisioSmás

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

RPS 177/12

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku
eder
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Ez al da ederra?



*"Ez al da
ederra eta indartsua
kolektiboa denak
euskara erabiltzea?"*

Udarekin batera iristen dira gure sare sozialetara (eta nahi baino gehiago gure emozioetara) festival handietako argazkiak, talde hau, bestea, look modernoak. Inbidiak jota bizi dugu etxetik sold out-aren kultura. BBK Live, Primavera Sound, Mad Cool... turismoa erakarri asmoz sorturiko festivalak, gentrifikazioa sustatzen dutenak, neoliberalismoz bustiak. Bilbon, Bartzelonan, Madrilen... auzokoentzat gero eta egoera negargarriagoa den hirietan bultzatzen da aisialdi eredu konkretu hori, kanpoko festivaleroa erakarritik. Erdaretan, noski.

Eufemismoa da euskararen egoera kaxkar xamarra dela esatea, baina euskara non eta zertarako erabiltzen den erreparatuz gero, agian irakurketa globalago eta positiboago bat egingo genuke. Izan ere, ez al dira festival handi horien alternatiba edo kontrajartze gisa antolatzen eta zabaltzen diren herri ekimen asko eta asko euskaraz egiten?

Ezin dugu gizarte oso bat 1+1+1... moduan bakarrik ulertu. Kolektiboa ere badelako garena. Agian interesgarria izan daiteke fokua norbanakoaren erabileran edo ohituretan jartzeaz gain, herri edota nazio mailako ekimen kolektiboak kontuan hartzea, bai sortzen ari direnak, bai indartzen direnak eta baita jadanik toki bat dutenak ere. Izan ere, euskararen aldeko apustu argia egiten da, azkenak aipatzearren, EHZ, Erronka edota Nahaste Borraste bezalako ekimenetan, zer esanik ez etortzearen diren jai herrikoi guztietan... Euskararen erabilera ez da sekulakoa izango, baina izugarria zalantzan ez jartzea Euskal Herrian sorturiko herri proiektu gehienek euskara dutela komunikazio hizkuntza.

Ez al da ederra eta indartsua kolektiboa denak euskara erabiltzea? Ez al da ederra turismo-aisialdi-eredu-gentrifikatzaile-eta-neoliberalari euskaraz erantzutea?

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eman odola, eman bizia

Udan gaude, opor-usaiane asko eta asko, eta sasoi honetan ohikoa izaten da gurean odol-emaileak urritzea. Odol beharra, baina, handiagoa izaten da udan, eta horregatik, urteroko mezua eman beharrean gaude. Gaur, barikua, hilak 5, egingo dira Mendaron odol ateratzeak, eta odola ematera etortzeko deia duzue hau. 16:30etatik aurrera, Mendaro ikastolan izango gara zure zain, 20:00ak aldera arte. Gogoratu odola emateko txanda hartu behar dela eta bi bide dauzkagulako horretarako: telefonoa (634 073 498) edota Internet (gotatanta.eus webgunea). Bukatu aurretik, Mendaroko Odol Emaileen elkartetik eskerrak eman nahi dizkiogu Morroskillo dendari, emandako babes eta laguntzagatik.

Mendaroko Odol Emaileen Elkartea

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 11:00 - 13:00

Leopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordu hartzeke.



MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ✓ ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7- Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

EXPRESS ESKAINTZAK!

3TS99BP BALAY ARROPA-GARBIGAILUA



A+ A

549 €

- 9 kg-ko karga
- 1200 b/min
- Funtzio pausa + karga
- Vario-soft danborra
- Denbora-adierazlea

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Dislegi Debabarrena elkartearantzat izango da Mendaroko garagardo azokan batuko duten dirua



Astebete barru, uztailaren 11n, zabalduko dute Mendaron garagardo azoka solidarioa. Hirugarren urtez egingo dute, eta aurten batzen duten dirua Dislegi Debabarrena elkartearantzat izango da. 2022an sortu zuten Debabarreneko Dislexia Elkartea, Gipuzkoako Dislexia Elkartearen aterkipean. Dislexia duten pertsonen eta haien familiei laguntzen diete Dislegin, dislexiaren eragin akademikoa eta soziala murrizteko tresnak eskainiz eta aholkuak emanez. Era berean, dislexia duten pertsonen ikasteko dituzten zailtasunak ezagutarazten, gizartea sentsibilizatzen eta kolektibo horrentzako aukeraberdintasuna lortzen egiten dute lan. Eta hain justu ere, dislexiaren inguruko kontu guzti horien inguruko hitzaldi batek hasiko du datorren egunean, garagardo azokaren antolatzaileek, *M7, kultura sustatuz* taldeak, osatu duen egitaraua. *Dislexiaren Erronka Gipuzkoan* izenburua eman diote hitzaldiari eta Dislegiko adituek emango dute, Mendaroko San Agustin Kulturgunean, 18:00etan hasita. Hitzaldiko aurkezpen-lanak Oihana Tarragual elkarteak kideak egingo ditu.

Horrez gain, erakusketa bat ere osatuko dute Dislegikoek, garagardo azokak irauten dituen hiru egunetarako, eta mahai informatiboa ere jarriko dute domekan, uztailaren 13an, goizez, 11:00etatik 13:00etara. Erakusketa, berriz, jubilatuen ondoko lokalean zabalduko dute eta 18:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da, egunero.

UZTAILAK 11, EGUENA

18:00-20:00 'Dislexiaren erronka Gipuzkoan' hitzaldia, San Agustinen.

18:00-20:00 Umeentzako tailerrak

18:00-20:00 Dislexiari buruzko erakusketa, jubilatuen ondoko lokalean. Hiru egunetan izango da hau, ordutegi berean.

20:30-22:30 Dislexia bistaratuz afaria, frontoian. Galle-Tiak Fabrik-en azkenburukoak eta Saint-Gerons txokolate dastaketa.

BARIKUA, UZTAILAK 12

10:30-13:00 Haurrentzako gozogintza tailerra Galle-Tiaken eskutik. Plaza mugatuak. Izena emateko: 633 050 406

13:00-18:00 Enpresetakoentzako bazkaria, jolas, opari eta sorpresa ugarirekin.

18:00-20:00 Esther DJa, Uztargin.

20:30-22:30 Afariak, frontoian

00:00-02:00 Remember Oraiko, Uztargi tabernan.

ZAPATUA, UZTAILAK 13

11:00-13:00 Dislexiari buruzko mahai informatiboa.

11:00-13:00 Mahai-jolasak, frontoian

14:00-18:00 Bazkariak

20:00-22:30 Afari solidarioa eta itxiera, frontoian. Opariak izango dira.

Frontoian egingo diren bazkari eta afarietarako erreserbak Uztargi tabernan edota frontoian bertan egin beharko dira.

Zapatutik igandera itxita izan zuten Mendaroko larrialdi zerbitzua, euriteek eragindako kalteengatik



Zapatu goizaldean hasi zen euri erauntsiak kalteak eragin zituen Mendaron, eta larrienak ospitaleko larrialdi zerbitzuetan. Klimatizazio sisteman sartu zen ura eta erizaindegiko sabaitik behera filtratu zen. Osasun-laguntza bermatzeko jarduera-protokoloa ezarri zuen Osakidetza, eta gaixo larrienak Donostiako eta Zumarragako ospitaleetara bideratuko zituztela zehaztu zuten, eta gainerakoak Eibarko Etengabeko Arreta Gunera. Biharamunerako, baina, konponduak zituzten kalteak eta 10:30erako ohiko jarduera berreskuratua zuten larrialdietan. Prentsa-ohar bidez, Osakidetza eskerrak eman zizkieten ospitaleko profesional guztiei, zapatuan erakutsitako "prestutasunagatik eta egindako ahaleginagatik". Era berean, eskerrak eman zizkieten pazienteei ere, "eragozpenen aurrean izan zuten jarrera onagatik eta erakutsitako eskuzabaltasunagatik".

Kalean ere hainbat eragozpen eragin zituen euriak, ohiko lekuetan. Kilimon etorbidearen lehenengo zenbaki parean, ur asko pilatu zen eta suhiltzaileak eta mankomunitateko langileak ibili ziren putzua husten. Era berean, luizi ugari ere gertatu ziren baserri bideetan, nahiz kalean bertan, Aranerre kara bidean.

Uztailaren 14a arteko epea dago santanetako kuadrillen eguneko bazkarirako izena emateko



Uztailaren 27an ospatuko dute Kuadrillen Eguna Mendaroko Santa Ana jaien barruan, eta Udaletik jakinarazi dute zabalik dagoela izena emateko epea, uztailaren 14a arte. Bazkaritan izena emateko gutxienez 14 urte izan beharko dira eta pertsonako bost euro ordaindu beharko dira. Uztargi, Ormola eta Aitz Beltz tabernetan eman behar da izena, kuadrillak. Udalak arroza eta oilaskoa banatuko dizkie kuadrillei egun horretako bazkaria prestatzeko eta 13:00etatik 14:30ak arteko tartea izango dute izena emandakoek paella prestatzeko. Bazkaritara txapel originalak eramateko eskatu dute. Aurten, hiru gauza hartuko dituzte kontuan sariak banatzeko: paellan lortutako emaitza (40 puntu), txapel originalenak (20) eta gauean egingo duten playbackean lortutako emaitza (40). Hiru sari banatuko dituzte.

Santanetako Nagusien Eguneko bazkarirako izena emateko epea, zabalik

Uztailaren 21ean ospatuko dute Mendaron Nagusien Eguna, eta egun horretan Aizpen bazkaltzeko aukera izango dute 70 urtez gorakoek (bikoteen kasuan, nahikoa da bietako batek baldintza hori betetzea). Aizpeko zuzendaritza taldekoek zerbitzatuko dute bazkaria, ohi bezala, eta interesatuek uztailaren 14ra arteko epea dute izena emateko. Roteta, Coviran edo Sonia dendetan, nahiz Lagun Betikoak tabernan eman ahal izango dute izena.

Udako Kuadrilla aisialdi eskaintza inklusiboa antolatu du Nuala elkarteak

Aniztasun funtzionala duten gazteei uda kuadrillan gozatzeko aukera emango die laugarren urtez Nuala elkarteak. Uztailean eta abuztuan, astean hiru arratsalde batuko dira Nualako gazteak, zazpi mutil eta lau neska, beren adineko gazteek egin ohi dituzten planak egiteko, begiraleek zainduta. Nualaren ekimen honek hainbat helbururi erantzuten die: batetik, gazteen ongizatea, gozamina eta ikaskuntza soziala bultzatzen ditu, eta bestetik, aniztasun funtzionala duten pertsonak ikusgarri egitea eta haien etxeko bizi-kalitatea hobetzea. Otsailetik ekainera bitartean ere gauzatu dute programa, eta hilabetearen bi zapatutan egin dituzte planak gazteek.

Programa hau Elgoibarko Udalak finantzatzen du zati handi batean, eta gainerakoa familien ekarpenetatik eta elkartearen dirutik finantzatzen da. Horri dagokionez, Nuala elkartetik eskerrak



eman dizkiete La Caixa Fundazioari, Danobat enpresari eta hainbat toki-erakunderi, hala nola Elgoibarko Ikastolari, TX4 gimnasioari, igeriketa klubari eta Mintxetako tabernari, egindako ekarpenengatik. Era berean, beharra duen edonori gogorarazi diote elkartearen ateak zabalik dituztela, eta posta elektronikoko bat zabaldu dute harremanetarako: nualaelkartea@gmail.com.

Helduen Hezkuntzako talde bat sortzeko ahalegina egingo dute Mendaron

Helduen Hezkuntzako (HHE) talde bat sortzeko saiakera egingo du Mendaroko Udalak. Oinarrizko prestakuntza eskaintzen dute Helduen Hezkuntzan, alfabetatzetik Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeraino, eta azkeneko urteetako eskaria kontuan hartuta,

herrian bertan ikasgela bat sortzeko bidea egingo du Mendaroko Udalak. Irailean zabalduko dute matrikulazio aldia eta taldea osatuko balitz, Udalak udaletxeko lokal bat lagako luke HHEko formazioak bertan egin daitezen datorren ikasturtean.

Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, Mendaron

16.000 euro banatuko ditu Mendaroko Udalak, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak berritzeko obretarako. Elementu komunetan, eraikinak irisgarri egiteko lanak, fatxada berritzeak eta teilatu konponketak lagunduko ditu diruz. Era berean, honako hauek ere lagunduko ditu: eraikinen inspektzio teknikoak eskatutako beharrezko lanak, efizientzia energetikorako hobekuntzak, autokontsumorako energia elektriko fotovoltaiakoa sortzeko instalazioak eta aeroterminia bidezko klimatizazio edota ur bero sanitarioaren instalazio zentralizatuak.

Elementu pribatuetan, berriz, %33 edo gehiagoko mugikortasun mugatua edo zentzumen desgaitasuna dutenentzako edo 65 urtetik gorakoentzako etxebizitzak egokitzeko laguntzak emango dira, baita lehioak, balkoiak, begiratokiak... ordezkatzeko laguntzak ere. Bestalde, aeroterminia bidezko klimatizazio edota ur bero sanitarioaren instalazioak ere barnebiltzen ditu dirulaguntza honek.

Dirulaguntza eskaerak 2024ko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, aurrez aurre, Herriarren Zerbitzurako Bulegoan (udaletxeko beheko solairuan), edo elektronikoki, udal webgunean.

Odola eman dute C.D. Elgoibarkoek



Joan den martxoaren 3an 107 urte bete zituen C.D. Elgoibarrek eta egun hori elkartasunerako eguna izatea erabaki zuten. Dirua batzeko hainbat ekintza antolatu zituzten, eta guztira 2.400 euro batu zituzten. Besteei laguntzen aritzen diren herriko elkarteei ematea erabaki zuten, hala nola, Gurutze Gorriari, Nualari, Dislegiri eta Caritasi. Elgoibarko Odol Emaleen Elkartekoei ere eskaini zieten dirulaguntza, baina eurentzako laguntzarik onena odola ematea zela erantzun zieten elkartetik, eta halaxe egin dute C.D. Elgoibarkoek. Joan zen barikuan futbol taldeko zenbait jokalarik eta klubaren bueltako hainbat lagunek odola eman zuten, Mintxetan duten bulegoan.

Herritarrek, bestalde, uztailaren 12an, izango dute odola emateko zita Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko bi aukera daude: *gotatanta.eus* webgunearen bidez edo Whatsappez 623 328 408 telefonora idatzita. Mendaron, gaur egingo dituzte odol ateratzeak, 16:30etik 20:10era, ikastolan. Aurrez txanda hartzeko: 634 073 498 telefonora deituta edota *gotatanta.eus* bidez.

Herritarrek aniztasunean hezteko baliabideak eta konpromisoak eskatu dituzte Harrotasunaren Egunean



Elgoibar LGTBIK+ taldeak deituta, elkarretaratzea egin zuten Maalan joan zen barikuan, Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, LGTBIK+ komunitatearen aldarrikapenak zabaltzeko.

Egunerako prestatutako manifestua irakurri zuten antolatzaileek jendarean, eta nabarmendu zuten Elgoibarren "deseraikitze lan handia" dagoela egiteko, "berreraikitze bat hasi aurretik". "Ezin dugu ahaztu Elgoibar langile-herria dela; eta, beraz, LGTBIK+ borroka klase borroka izanik, herritar guztien eskubideak bermatzeko lan egin behar dugula". Eskubideak bermatu ahal izateko, baina, herritarrek aniztasunean hezteko baliabideak eta herritar guztien kontzientzietan eragiteko eta pizteko konpromisoak beharrezkotzat jo zituzten. Horren harira, Udaleko egituraren talde zaurgarrietako kideak ordezkaturata egon beharko lirakeela esan zuten, "aniztasunarekiko perspektiba asko aberastuko lukeelako".

Aldarrikapenekin batera beste mezu bat ere zabaldu zuten agerraldian: "Herritarrei jakinarazi nahi diegu hemen gauzkatela, nahi dutenerako, lanean ari garela eta ateak zabalik ditugula". Instagramen duten kontuaren (@elgoibarlgtbik) bidez jar daiteke beraiekin kontaktuan.

Dolmenen ibilbidea bisitatzeko irteerak antolatu dituzte udarako

Karakate eta Irukurutzeta artean dagoen Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu Debegesak uztailerako eta abuzturako. Uztailaren 11n eta abuztuaren 29an euskaraz egingo dituzte bisitak, eta uztailaren

25ean, abuztuaren 8an eta 22an, gaztelaniaz. 10:00etan hasiko dira saioak, Karakateko aparkalekuan. Erreserba egiteko: 657 794 677 telefonora deitu edo info@begi-bistan.com helbidera idatzi behar da.

'Oporrak bakean' egitasmoko familiei harrera egin die Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak harrera egin die *Oporrak Bakean* egitasmoaren barruan Elgoibarrera etorri diren bi haur sahararrei. Ekainaren 30ean iritsi ziren Loiura, eta Elgoibarrera etorri diren bi haurrek uda osoa igaroko dute udaleku irekietan parte hartzen. Elgoibarko Udalak bat egin du proiektu horrekin, eta horrez gain, Udalak 1.580 euroko dirulaguntza eman dio *Oporrak bakean 2024* programari, Tindufetik Loiura joateko eta itzultzeko gastuak ordaintzen laguntzeko: hegaldiak, pasaporteak, bisak,


akreditazioak, haurren aseguru pribatuak eta horiekin batera doazen begiraleenak. Saharako haurrei errefuxiatu-kanpamentuetan bizi duten errealitatea aldi batez ahaztu eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera eman nahi diete haur sahararrei programa honen sustatzaile den Euskadiko Saharar Ordezkaritzak eta horretarako laguntzaile ditu Saharar Herriaren Lagunen Elkarte eta euskal erakundeak. Aurten euskal familiek 199 haur saharar hartu dituzte *Oporrak bakean* programaren barruan.

10.151 erabiltzaile izan dira ekainean Mintxetako igerilekuan

Ekainaren 1ean zabaldu zituzten Mintxetako igerilekuak, eta lehen hilabetean 10.151 erabiltzaile ibili dira igerilekuetan. Eguraldiak gehiegi lagundu ez badu ere, Udalak emandako datuen arabera, eguraldi ona izan den lau egunetan, erabiltzaile kopuru "esanguratsua" lortu da: ekainaren 16an 1.031 pertsona erregistratu ziren; ekainaren 17an, 1.104; ekainaren 25ean, 1.435, eta ekainaren 26an, 1.262.

Elgoibarko Udaletik nabarmendu dute, bestalde, inguruko herrietako ikastetxeek kurtso amaierako txangoak ere egin dituztela Mintxetara, "aurreko urteetan baino gehiago". Elgeta, Eibar edota Ermuko umeak izan dira, besteak beste.

Elgoibarko Udalak, bestalde, eskilara-arrapala berria jarri du Mintxetako igerileku handira sartzeko, mugikortasun zailtasunak dituzten herritarrei uretara sartzeari errazteko.





ERRELEBOA GARATE JANTZI DENDAN

Garatetarren hiru belaunaldi ezagutu ditu Garate jantzi dendak, eta guztira izango dira 140 bat urte denda zabaldu zutenetik. Baina dena hasi eta amaitzen da, eta garatetarren dendako ibilbidea ere iritsi da amaierara. Aintzane eta Ruth Garatek denda utziko dute uztailaren amaieran, baina Garatek martxan jarraituko du. Erreleboaren ordua iritsi da Garatera.

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

Uztailaren 30ean lagako dute Garate jantzi denda Aintzane eta Ruth Garatek, eta Iratxe Etxarrik hartuko du erreleboa. Garatetarren hiru belaunaldiren ostean, beraz, pauso bat atzera egingo dute, baina dendak bere horretan jarraituko du. Poza eta tristurak bat egiten duten bidegurutzean beraz, pozak hartu du gaina, Garate jantzi dendak gaur egungo esentziari eutsiko diolako. "Poz handia ematen digu jakiteak dendak berdin jarraituko duela, eta alde horretatik lasai goaz. Esku onetan lagako dugu denda", esan du Aintzane.

Badira urte batzuk erreleboan pentsatzen hasiak zeudela, eta azkenean ia ustekabeen iritsi zaie. "Iratxe aspalditik ezagutzen dugu, gure konfiantzazko pertsona da, eta urteak daramatza dendetan lanean. Jakin genuen bere denda zabaldu nahi zuela, eta gu lagatzekotan geundenez, Garate eskaini genion".

Ez zuen denbora askorik behar izan Iratxek erantzuna emateko, eta bizpahiru egunetan erabakia hartuta zeukan. Lekukoa hartuko du Garate jantzi dendan, eta negozioaren bideragarritasun azterketa egin ostean, egungo izaerari eutsiko dio, beti ere bere ukitu pertsonala emanda.

Garatetarren etapa amaitu da, baina Garate jantzi dendak betiko esentziari eutsiko dio

Garatetarren 140 urteko ibilbidea, beraz, amaierara iritsi da. Genaro Garate eta Antonia Goiartzunek zabaldu zuten negozioa estreinakoz, Ruth eta Aintzaneren aiton-amonak. Lehenengo denda Pol-Pol taberna egon zen lokalean zabaldu zuten, gaur egun Kebab taberna dagoen horretan. Errentan zeukaten lokal hura, eta ahal izan zuenean egungo lokala erosi zuen aitonak, goiko solairuarekin. 11 seme-alaba izan zituzten, eta izeba bat ere beraiekin bizi zen. "14-15 bat lagun biltzen ziren egunero etxean, eta eguneroko bizimodua dendan egiten zuten. Lokalaren hondoan sukaldea zegoen, eta amonak han prestatzen zuen jatekoa. Bertan jaten zuten, eta gora lotara joaten ziren".

Sastreak ziren garatetarrak, eta arropa josi egiten zuten. "Garai hartan jantzi denak neurrira egiten ziren, eta lanbide garrantzitsua izan zen jostun eta sastreena".

Haien ondoren Niceto Garate eta Gloria Cagigas geratu ziren dendan, Ruth eta Aintzaneren gurasoak. 1966an hartu zuten dendaren ardura, hain zuzen ere Ruth jaio zen urtean. Aintzanek ordukoak ditu bere lehen oroitzapenak: "Dendari buruz ditudan lehen oroitzapenak dira Santa Klara eskolara joan aurretik aitari agur esatera etortzen nintzela dendara", oroitu du Aintzanek. Aulki txiki baten eserita topatzen zuen aita, josten. Hala ere, ordurako hasita zegoen aldaketa, eta jostungintza hasia zen apaltzen. Niceto eta Gloria, beraz, egoera berrira moldatu eta egindako arropak

saltzen ere hasi ziren. Aldaketa handia izan zen hori dendarako, eta arropa berriak saltzen hasi ziren: "Gure aitak kirolerako afizioa zeukan, eta ehiza eta arrantza asko gustatzen zitzaizkion. Sastreria, beraz, ehiza eta arrantzako artikuluekin uztartu zuen hasieran, eta poliki-poliki, kirol desberdinetarako materiala saltzen hasi ziren".

Hirugarren belaunaldia izan dira Aintzane eta Ruth. Oinarrizko ikasketak amaitu eta zuzenean dendara joan ziren biak, gehiegi pentsatu gabe. "Lehen horrela izaten zen. Gure nebek ikasten jarraitu zuten, eta neskak dendan geratu ginen. Gurasoek ere horrela esaten zuten, neskak etxean geratu ginela laguntzen", gogoratu dute bi ahizpek. Aintzane ahizpa nagusia izanik, lehenago hasi zen dendan lanean. 16 urte zituela hasi zen lanean eta gogoratzen du bere aitarentzat sekulako iraultza ekarri zuela. "Estatu Batuetan modan zeuden praka bakeroak eta horrelakoak ekarri nituen lehenengo aldiz dendara. Eskaparateko tarte txiki bat uzten zidaten nire materiala jartzeko, eta gainerakoa beraiek antolatzen zuten. Sekulako



Mari Garate, Antonia Goiartzun eta Claudia Mendizabal, dendaostean josten.

arrakasta izan zuten bakeroek, ekarri eta saldu egiten ziren. Gurasoek ere ikusten zuten, beraiek josten zituztelako praken barrenak ere, eta konturatu ziren aldaketa zetorrela". Gizonezkoen jantziak saltzen hasi ziren hasieran, baina konturatu ziren emakumezkoek ere berdin erosten zituztela arropa haiek.

Denda izan da Aintzane eta Ruthen bizimodua, dena eman die dendak, eta beraiek ere zeukaten onena eman diote dendari. "Ordu asko sartu ditugu eta lan handia egin dugu, baina gustura bizi izan gara. Zorionez gure artean ere ondo moldatu izan gara, haserre handirik gabe", gogoratu dute.

Aintzane Elgoibarren bizi izanda, bere alabek ere lotura estua daukate dendarekin: "Dendan egin dugu guk bizimodua. 16 urterekin sartu nintzen eta akordatzan naiz nire multil-laguna dendara etortzen zela nire bila. Erditzera ere zuzenean joan nintzen dendatik, eta Ainhoa jaio zenean, ospitaletik zuzenean dendara etorri nintzen. Ni lanean eta umea sehaskan egoten zen hemen. Nire bi alabak dendan hazi dira, eta nire bilobak ere ez dira plazara joaten dendan geldialdia egin gabe". Ainhoa eta Nerea Lendinez dira Aintzaneren alabak eta haien lehen lan esperientzia ere Garate jantzidendan izan zen. Ainhoak azaldu du bere lehen curriculumean harrotasun handiz jartzen zuela Garaten hasi zela lanean: "Jendeak uste du denda bateko lana saltzea bakarrik dela, baina ezta urrik eman ere: arropa guztia markatu, ordenagailuko aplikazioan sartu, ordenatu, egunero errepasatu zer falta den kanpoan eta biltegitik atera... Amak lehen egunean esan zidan: 'Ainho, norbait sartzen denean, zuk jakin egin behar duzu dendan zer daukagun berarentzat egokia izan daitekeena'. Dendako lanean psikologia handia dago, enpatia landu behar duzu eta egun on zein ez hain onetan, bezeroarekiko hurbiltasuna erakutsi behar duzu. Orain garaia asko aldatu dira, baina oraingoa ere izugarri polita da. Sare sozialetan sekulako harrera izan dugu eta oso-oso garai emankorra ari da izaten. Nik nere lanpostua daukat, baina beti nago begi bat dendan jarrita, asko gustatzen zait".

Ruthek 40 urte egin ditu dendan, eta azken urteetan gainera, berari tokatu zaio dendari tira egitea, ahizpak osasun arazoak izan dituelako. Zailtasun eta oztopo asko gainditu behar izan zituztela dio, eta egoera berrietara moldatu behar

Denda izan da Aintzane eta Ruthen bizimodua. Dena eman die dendak eta beraiek ere zeukaten onena eman diote dendari

izan dutela. Merkataritza zentro handiak izan ziren lehenengo, Internet eta sare sozialak ondoren, eta azkena Ticket Bai. "Denda txikiak hiltzorian daude. Guk zorionez eutsi diogu aldaketen olatuari eta negozioa martxa onean doa, baina toki guztietatik trabak jartzen dizkigute, lagundu beharrean. Oso nekeza da egoera hau", dio Ruthek. Hori dela eta, ulertzen dute beraien ondorengoek beste bide bat hartu izana. Nostalgia puntua nabari zaio hitzetan: "Gogoratzen naiz gu gazteak ginenean asteburuetako plana izaten zela kalera irten eta eskaparateak ikustea. Gaur egun beste ohitura batzuk daude, eta eskaparateak itzali egiten ditugu. Kaleak gris eta ilun daude, eta joera horrek horrela jarraituko du. Nik gozatu egin dut bezeroekin, konfiantza handia izan dugu beraiekin, konplizitate handia, eta ahal izan dugun ondoen hartu ditugu erosle guztiak. Dendan lan egiten duten langileek ere beti esaten digute hori dela gure altxorra". Gaur egun erosteko modua izugarri aldatu da, eta Internetez saltzen dute asko. Horretan Ainhoa Lendinezek lagundu die asko: "Eskerrak gure Ainhoari. Gaztea da, eta bere lanbidea dela-eta ezagutzen ditu sare sozialak. Gaur gaurkoz gure eskaparaterik onena hori da. Hor ikusten ditu jendeak gure produktuak, eta askok online erosten badute ere, bezero asko etortzen dira dendara han ikusitakoa erostera".

Komertzio txikiaren etorkizuna kolokan ikusten dute: "Iparraldea oso polita da, baina tristea, ez dagoelako dendarik, eta hegoaldea ere bide beretik doa. Denda txikiak bizia ematen dio herriari, eta zaindu egin beharko genuke". Pozik agertu dira Garate ahizpak Elgoibarko hainbat dendatan gazteek hartu dutelako erreleboa, baina uste dute epe laburrean komertzio asko itxiko direla, jubilazioen eraginez. Zorionez, Garate jantzi dendak aurrera jarraituko du, beste fase baten, baina betiko esentziarekin. "Ametsik onenetan nahiko genukeen moduko amaiera eman diogu etapa honi".



Pilar Irusta Urbietta

2024ko ekainaren 28an hil zen.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Zure ilobak



Pilar Irusta Urbietta

2024ko ekainaren 28an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak



Javier Arregui Etxaniz

2024ko ekainaren 28an hil zen, 79 urte zituela
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ama lurrak
goxo har zaitzala bere besoetan.***

Etxekoak



SERGIO GONZALEZ

C.D. Elgoibarko
material arduraduna

✍️ Ainara Argoitia
📷 Asier Orbea

Bizi oso bat eman du Sergio Gonzalez *Kukik* C.D. Elgoibarri lotuta. 14 urte zituela hasi zen klubarentzako lanean eta 45 urte egin ditu material arduradun gisa. Erretiroa hartu du orain, eta joan zen barikuan omenaldia egin zioten gertuko eta lagunek. Mintxetan egin dugu hitzordua harekin. Denboraldia amaitu da futboleant, piszinarako eguraldirik ere ez dago uztailean sartuta egon arren eta ez dabil jende traba handirik Mintxetan. Alcortako matxinoak hausten du isiltasuna. Mintxetako bazterrak bezain ezaguna du zarata hori Gonzalezek. Gaur ere, goizeko txandan lan eginda dator handik.



*“Ohore handia izan da niretzat
C.D. Elgoibarren parte izatea”*

Ez dira konpromisorako eta militantziarako garairik onenak hauek, baina C.D. Elgoibar moduko klub bati 45 urtez lotuta egoteak bietatik izango du ziurrenik, ordaindutako lana izan bada ere zurea. Noiz, nola eta noren eskutik iritsi zinen zu C.D. Elgoibarrera?

Umetan entrenamendu eta partida guztietara joaten nintzen Lerunera, eta 12 bat urterekin baloi jasotzaile lanetan jarri ninduten. Pare bat urtez ibili nintzen horretan, eta gero, 14 urterekin, material arduradun izendatu ninduten, Odilo Atrioki lagatako hutsunea betetzeko. Eta bai, hemen dirua irabazteko ez dago inor, hori garbi.

Niri ordaindu egin izan didate egindako lana hemen, baina futbola eta talde hau maite izan ditudalako egon naiz hemen horrenbeste urtean. Soldata Alcortan irabazi dut. Futbola gustatu ezean, ez dago hemen urteak egiterik. Pentsa zer den Bigarren Maila batean zapatuz Cuencaraino autobusez joan, gaua han pasa, biharamunean partida jokatu, dena jaso, zazpi-zortzi orduko bidea egin atzera etxera itzultzeko eta seiretarako tailerrera joatea. Askok gustatu behar da.

Etxean ere esango zizuten ba zerbait, ala?

Pazientzia handia izan dute etxeokoei beti,

eta esango nuke nahiko ondo eramán dutela. Maiatzean denboraldia amaitu eta uztailean hasten da hemen denboraldi-aurrea, eta abuztuan etxekoekin oporretara joateko hamabost bat egun libratzeko ibiltzen nintzen estu.

Ume zinela hasi zinen lanean. Fina izango zinen, klubak eman zizun ardura emateko 14 urterekin.

Lehen ez zegoen oraingo konturik! Orduan ez zegoen gaur beste arropa eta trasterik, ezta gaur besteko mugimendurik ere. Orduko material arduradunaren lanak eta gaurkoarenak ez dute, beraz, zerikusirik. Lehen, lanik handiena oinetakoek ematen zuten. Ikustekoa zen nola gelditzen ziren entrenamenduro eta partidaro jokalarien larruzko bota haiek Lerunen, goraino lokatzez beteta. Han futboleán ere ezin izaten zuten egin mutilek; ostikoka aritzen ziren baloia gora bidali nahian. Bota haiek eskuila eta koipe potea hartu eta banan-banan garbitzeak ematen zuen lana! Eta zer esanik ez oinetakoen takoak konpontzeak. Oinetako konpontzailearen lana egin behar izaten nuen, eskuz. Gainerako arropa, entrenamendu ondorenean bildu eta Eibarrera bidaltzen genuen, Margolan arropa garbitegira. Kantinan uzten nituen nik, poltsetan sartuta, eta haiek etortzen ziren bila. Geroago, Elgoibarko emakume bati eman zioten ardura hori. Ez daukat gogoan haren izena, baina Zubiaurre zen abizenez. Orain, berriz, jokalarik gehienek etxera eramaten dituzte botak, eta arropa garbitu eta lehertzeko lau garbigailu eta beste horrenbeste lehorgailu dauzkagu Mintxetan bertan. Haundikoen arropak garbitzea eta prestatzea izan da azkeneko urte askoan nire lana, eta azkeneko denboraldi honetan, bi talde nagusien ardura eman didate: gizonezkoen eta emakumezkoen taldeenak.

Dena aldatu da eta zer esanik ez futboleán. Lerundik Mintxetara aldatzeak ere ekarriko zuen aldaketarik.

Klubaren 75. urteurrena ospatu zen urte berean etorri ginen Mintxetara, 1993an, eta aldaketa izugarria izan zen. Lokatzetan jokatzetik alfonbra gainean jokatzerara pasatu ziren. Lerunen, futbol zelaia zaintzea ere nire lana izaten zen. Hangoari zelaia deitzea ere gehiegi izango da akaso, baina zegoen belar apurra moztu eta zaindu behar izaten zen, arrabola motordunarekin, eta futbol zelaiko marrak ere margotu behar izaten ziren, karez. Egiteko horretan beranduago hasi nintzen,

"Lehen, lanik handiena oinetakoek ematen zuten. Lerunen, botak eskuila eta koipe botea hartu eta banan-banan garbitu behar ziren, eta takoak konpondu"

hori bai, ni hasi nintzenean Jesus Galarragak egiten zuelako hori, bai eta ateetako sareak jarri eta kendu ere. Mintxetako zelaia mantentze lan handirik ez du behar. Tarteka makina pasatzen dute zelaia eskuilatzeko, eta listo.

Materiala zaintzen bakarrik ez, futboleán ere ona zinela entzuna daukagu. Gaurko Herri Eskolan jokatzen ziren partidetan goleatzaileena ere izan omen zinen noizbait?

Kar-kar. Bai, jubenilak arte jokatu nuen futboleán, eta beti gustatu izan zitzaidan, baina esango nuke futboleán nenbilenean ere ardura handiagoz hartzen nuela materialaren zaintza. Urkiola taldearekin jokatzen nuen nik orduan Urazandiko txapelketa haietan eta noizbait izan nintzen gol gehien sartu zituena, bai, baina besterik gabe. Gaur Aita Agirre den plazan ere ibilitakoa naiz futboleán, beti aurrelari gisa. Plaza Txikia izan zen garai batean C.D. Elgoibarren harrobi nagusia.

C.D. Elgoibarrek Lerunen jokatzen zuen garaiko zer oroitzapen gordetzen duzu? Eta bigarren etapatik?

Jose Mari Arakistain entrenatzaile zela, Haundi Bigarren B mailara igo zenekoa dut bereziki gogoan. 1991-1992 denboraldian izan zen. Barbastroren kontra 2 eta 1eko emaitzarekin irabazita igo genuen mailaz. 2.000 zale inguru batu ziren Lerunen partida hura ikusteko [1992ko ekainaren 28an jokatu zen partida]. Ez zen ondo hasi, egia esan, hirugarren minuturako sartu zigulako Barbastrok gola. [Igoera gero eta urrunago ikusten ari zirenean, 30. minutuan, partida berdindu zuen Bedaiok eta 80. minutuan erabaki zuen partida Joseba Igartuak, bigarreña eginda. Bizkarrean hartuta atera zuten zelaitik zaleek]. Sekulako festa antolatu zen Elgoibarren. Mintxetako etapakoak ere badauzkat oroitzapen ederrak, Haundi Hirugarren mailara eta Bigarren B mailara (96-97) itzuli zenekoak bereziki. Enrike

Ormaetxea zen orduan entrenatzaile. Sona handiko kluba izan zen urte haietan Haundi eta jokalaria ere gustura etortzen ziren hona, erdiak kanpokoak izaten zirelako. Gurea moduko herri batentzat gauza handia zen maila horretan taldea izatea.

Momentu txarrik ere izango zen horrenbeste urtean.

Bigarren B mailan egotetik preferenteraino jaitsi ginen sasoi hura. Ia-ia joan ginen lehenengo erregional mailaraino. Zer izan zen hura! Ahaztekoa.

Omenaldia ere egin dizutela entzun dugu. Zer izan da zuretzat 45 urtez C.D. Elgoibarko parte izatea?

Isilean prestatu zuten dena. Ostiralean Mintxetara agertzeko esan zidaten eta hona etorri nintzenean afaltzera eraman ninduten. Hunkitu nintzen afaritan batu zen jendea ikustean. Jose Mari Mendizabal *Kolonbo* Hernani futbol taldeko delegatua eta material arduraduna dena ere han zegoen. 48 urte daramatza berak egiteko horretan Hernanin, lagun handia dut, eta sekulako poza eman zidan Elgoibarrera etorri izanak. Futbolak aukera hori ere eman dit, Elgoibartik kanpora ere lagun onak egitekoa.

Eta zer izan den C.D. Elgoibarko parte izatea? Ohore handia. Sufritu eta gozatu, bietatik egin dut asko. Haundiren partida egunetan aulkian egon naiz beti, entrenatzaile eta ordezkoko jokalariekin, eta bizi izan dut beti futbola. Estimatu handia izan diet beti jokalariei, eta ikasi ere asko egin dut haien ondoan. Ikusi ere egin diet batzuei proiektzio handia izan zezaketela. Jagoba Arrasateri esan ere egin nion hemen hasi zenean Lehenengo Mailako talde bat entrenatzen ikusten nuela.

Zer ikusi zenion ba?

Oso entrenatzaile ona eta argia zela, karisma handikoa. Liderra da Jago, zelaian nahiz zelaitik kanpora. Jokalariei gauzak esateko zuen moduak txunditu ninduen. Langile serioa eta gizon ona da. Joan den leku guztietara jarraitu diot nik; urtean behin, beti joan naiz haren taldearen partidaren bat ikustera beste bi-hiru lagunekin, eta omenaldirako bidali zidan bidean ere horixe aipatzen zidan: Mallorcara joan dela orain eta urrutiagora bidaiatzera behartu nauela. 2008-2009 denboraldian hartu zuten entrenatzaile izateko C.D. Elgoibarren. Hirugarren Mailan

*"Ondo zaindua sentitu naiz
C.D. Elgoibarren. Klubera datorren
jendeari ezer falta ez dakion saiatu
naiz beti; gustura egotea jendea
Elgoibarrera datorrenean"*

mantentzeko helburuarekin ekarri zuten. Abuztuan iritsi zen eta plantillarik ere ez zeukan, baina osatu zuen taldea, eta hemen egon zen bi urteetan Bigarren B mailara igotzeko faserako sailkatu ginen. Estreinako aldian, Burgos egokitu zitzaigun zozketan aurkari eta irabazi egin zigun, eta bigarren urtean Marino Luancoren kontra galdu genuen igoera fasean.

Esker onekoak al dira jokalariai ala hona ere iritsi dira futbol profesionalean ikusten diren kontuak?

Ez, ez. Hauek naturalak dira eta esker onekoak. Kategoria hauetan ez dago señoitorik. Beti daude laguntzeko. Aldageletan entrenatzailearen berriketaldia izaten denean ere han egoten naiz ni beti; gustatzen zait taldeko sentitzea. Egia esan, ondo zainduta sentitu naiz ni beti C.D. Elgoibarren. Klubera datorren jendeari ezer falta ez dakion saiatu naiz beti; gustura egotea jendea Elgoibarrera datorrenean.

Eta, erreleborik ba al dago?

Gaur arte izan den moduan, ez dut uste behintzat. Jende asko mugitzen du futbolak, baina ez pentsa lanerako prest dagoen jende askorik etorriko denik hona ere. Ni neu banoa. Abenduan lanean ere erretiroa hartzekoa dut eta uste dut nahikoa urte izan direla 45.

Eta jarraituko al duzu Mintxetara igotzen?

Seguru. Esperantza hori daukat behintzat. Beharbada ez naiz partida guztietara etorriko, emaztea ere haserretuko zaidalako bestela, baina badaukat asmoa etortzeko.

Entrenatzailearen ondoan horrenbeste partida ordu eginda, harmailetatik taldea zuzentzen hasteko kapaz zara.

Ez, ez. Horrelakoak baditugu hemen bestela ere. Nik futbolaz lasaiago gozatzeko asmoa daukat orain.



Antonio Viñaras de Pablo

2024ko ekainaren 28an hil zen, 89 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta
hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Petra Arrillaga Arrillaga

2023ko uztailaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
uztailaren 7an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde z aurretik eskerrak.



IV. URTEURRENA

Ioseba Arrizabalaga Mendikute

"Iriarte"

2020ko apirilaren 19an hil zen,
43 urte zituela.



I. URTEURRENA

Juan Jose Arrizabalaga Larrañaga

"Iriarte"

2023ko uztailaren 8an hil zen,
74 urte zituela.



Pepita Usatorre Lizarralde

2024ko maiatzaren 2an hil zen,
90 urte zituela.

Juan Josereren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailaren 7an, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde z aurretik eskerrak.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



HIRU BATEAN NAHASTUTA

✍ Ainhoa Andonegi 🚴 Asier Orbea

Berezia da Nahaste Borraste, bai partaideentzat eta baita ikusleentzat ere. Kimetz Elkarteak antolatzen du hiru kirol modalitate proba bakarrean batzen dituen Nahaste Borraste proba herrikoia. Urteetako soka dauka probak, eta urteetarako karreteia dauka oraindik. Dena ematen dute parte-hartzaileek eta aurtengoan Beristain anaiak izan dira onenak. Lasterketaren zati handi bat elkarrekin egin eta gero, 20 urteko Ikerrek gurutzatu zuen helmuga lehen postuan, 18:33 denbora eginda. Zortzi segundora iritsi zen anaia nagusia, 24 urteko Jon. Ioritz Leiaristik osatu zuen gizonetzkoen podiuma. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen partaide bakarra, eta 17. aldiz jantzi zuen txapela. Beteranoen saria Alberto Zelaiak jaso zuen eta gazteetan onena Iker Beristain bera izan zen. Argazki gehiago eta emaitza guztiak: barren.eus





Eguraldiak baldintzatu ditu San Pedro jaiak

San Pedro jaiak ospatu dituzte asteburuan Idotorben. Zapatuan euria izan zen protagonista nagusia eta programako hainbat ekintza bertan behera laga behar izan zituzten. Domekan, baina, ateri egin zuen eta tarteka eguzkia ere batu zen festara. Herritar asko igo ziren auzora, eta giro onean joan ziren ekintzak. Jaien amaieran errifaren zozketa egin zuten eta hauek izan dira zenbaki irabazleak: 1. saria: 1466 (ordezkoa 1366) / 2. saria: 1733 (ordezkoa 3744). Argazki gehiago: barren.eus



Heads Holes, Pelax, Gailu, Mice eta Belako izango dira aurtengo Gararock jaialdiko talde gonbidatuak

Ostiralean, Gararock Parkean izenburupean, Petti eta Etxeko Uztak taldeak San Agustin kulturgunean eman zuten kontzertuan aurkeztu zuten Ina Iriondo, Josu Iriondo eta Aingeru Gallastegi Gararock taldekoek irailaren 21eko Gararock jaialdia. Heads Holes, Pelax, Gailu, Mice eta Belako taldeek osatuko dute egun horretako kartela, eta Eusebio Mugertza *Txirristaka* Mendaroko bertsolariaren irudi bat baliatu dute antolatzaileek jaialdia iragartzeko kartelerako, bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurrenari keinu eginez. Kamisetak eta poltsak ere atera dituzte motibo horrekin, eta salgai dituzte dagoeneko.

Ostiraleko kontzertuaz oso balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Azpilgoetako Santa Kruzkuako parkean egitekoa zuten kontzertua San Agustin aretora aldatu zuten eguraldiagatik, eta publikoak emandako erantzunarekin gustura ziren



antolatzaileak. Oso giro ona izan zela esan dute bai Gararock taldekoek eta baita kontzertuan izan zirenek ere, eta indar handiko kontzertua izan zela nabarmendu dute guztiek. San Agustingo terrazan txosna eta materiala saltzeko mahaia ere jarri zuten eta kamiseta eta poltsa ugari saldu zituztela azpimarratu dute.  Ion Urbieta

Gaur, hilak 5, hasiko da Elgoibarren aire libreko zinema

Gaur, ostirala, hasiko dituzte Elgoibarren aire libreko zinema emanaldiak, *El método Williams* filmarekin. Emanaldiak Kalegoen plazan izango dira, bariku eta zapatuetan, 22:30ean hasita. Honako hauek izango dira uztailaren 27a artekoan emango dituzten filmak, gaurkoaz gain:

- Uztailaren 6an: *Momiak*
- Uztailaren 12an: *Los Mitchel contra las máquinas.*
- Uztailaren 13an: *Jurassic world*
- Uztailaren 19an: *Fast&Furios*
- Uztailaren 20an: *Mavka*
- Uztailaren 26an: *Barbie*
- Uztailaren 27an: *Elemental*

Zabaldut dute Elgoibarko bertso eskolan izena emateko epea



Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartek antolatzen dute urtero bertso eskola Elgoibarren, ahozketasuna eta euskararen erabilera sustatzeko, eta jakinarazi dute zabaldut dutela datorren ikasturterako izena emateko epea. 8 eta 16 urte bitartekoentzako eskaintza da, eta astean ordubeteko eskolak izaten dira. Uztailaren 24ra arteko epea dago izena emateko, eta 943 744 366 telefonora deitu behar da edota euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi.

Itxaso Garaizabal eta Lea Lazarobaster izan dira sanbartolomeetako kamiseten irudi lehiaketako irabazleak



San Bartolome jaietako Umeen eta Nerabeen Egunetarako kamisetak apaintzeko irudi lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, eta dagoeneko jakinarazi dituzte irabazleak: Umeen eguneko kamisetaren irudiaren irabazlea LH5eko Itxaso Garaizabal izan da eta Gazteen Egunkoa, berriz, Lea Lazarobasterrek irabazi du. Egur arte tailerreko ikasleek aukeratu zituzten hamar finalistak eta gero umeen botoen

bidez aukeratu zituzten irabazleak. Irabazleek nahiz epaimahaikideek Txankakuako dendetan gastatzeko erosketa bonoa jaso dute opari.

Txoko osagarriak antolatu ditu Atxutxiamaiak irailerako

Umeak eskolan hasi aurreko egunetarako zerbitzua prestatu du Atxutxiamaiak, eta irailaren 2tik 5era txoko osagarriak eskainiko ditu. 2010 eta 2021 urteen artean jaiotako umeek eman dezakete izena. 09:00etatik 13:00etara emango dute zerbitzua, eta besteak beste, jolasak, natur ekintzak, eta bestelako jarduerak antolatuko dituzte. 64 eurokoa izango da prezio arrunta,

eta bazkideentzako prezioa 58 eurokoa. Taldea sortuko balitz, Goiz Txoko zerbitzua ere eskainiko lukete, 08:00etatik 09:00etara. Bi eskaintzak hartzen dituztenek 75 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 68 euro). Izena emateko formularioak elgoibarkoizarra.eus webgunean aurkituko dituzue. Informazio gehiagorako: 943 741 746.

Sara Basurtoren kartelak iragarriko ditu 2024ko sanbartolomeak



Hamabost lan aurkeztu dituzte 2024ko San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara, eta Sara Basurto Albizu elgoibartarrak aurkeztutako lana saritu du epaimahaiak. 800 euroko saria irabazi du Basurtok. Hauek osatu dute epaimahaia: Maialen Gurrutxaga alkateak, Kultura Batzordeko presidente Andrea Arriolak, Ongarri argazki taldeko Jesus Mari Sarasuak, Gemma Monreal eta Emi Nogales margolariek, eta Kokoe komiki taldeko Iñaki Raigosok.

Elgoibarko elkarte sarea sustatzeko planaren lehen fasea amaitu dute

Elgoibarko elkarte sarea indartzeko Elkartekintza plana diseinatu zuen Udalak, eta lehenengo fasea amaitu berri dute. Proiektuaren lehen fasean, herriko hainbat elkartetako ordezkariak elkarriketatu dituzte, eta sei lan-ildo identifikatu dituzte honako erronka eta helburu komun hauei begira: prozesu burokratikoak erraztea, parte-hartzaileen aniztasuna handitzea, zuzendaritza-taldeen txandak erraztea, elkartearen lana aitortzea eta ikusaraztea, hainbat erronkari aurre egiteko prestakuntzak eskaintzea eta lankidetzaren lana sustatzea.

Ondoren, dinamika parte-hartzaile bat antolatu zuten hogeitabat lagunekin, eta aurrera begirako ekintza plana zehaztu dute: izapide burokratikoetarako aholkularitza-eredu komuna sortzea, Udalak eskatutako dokumentuak eta prozesuak arintzea, elkarteak eratzeko eta kudeatzeko gida sortzea, zuzendaritza-taldearen erreleboan laguntzea, prestakuntza espezifikoak



antolatzea, elkartearen eguna antolatzea, elkarteentzako komunikazio-plana definitzea, elkarteak konektatzeko bitartekoak ematea, bai online bai aurrez aurre, eta elkartearen arteko lankidetzaren sustatzea.

Elkartekintza proiektuan parte hartzeko interesa dutenek, partaidetza@elgoibar.eus helbidera idatzi dezakete.

Urazandiko jaietako paella janerako boletoak salgai daude



Uztailaren 12tik 14ra ospatuko dituzte Urazandiko jaiak, Herri Eskolaren gaineko aparkalekuan. Egitarau zabala prestatu dute aurten ere antolatzaileek, eta horien artean paella jana egingo dute zapatuan. Dagoeneko salgai daude bazkari horretan parte hartzeko boletoak Celia tabernan eta Kima Bioestetika zentroan, 12 euroan. Jai Batzordeko kideak ere ari dira bazkaritarako boletoak saltzen. Horrez gain, errifak ere saltzen ari dira, eta sariak ikusgai jarri dituzte Benito harategia izan zen lekolean.

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak erosi zituztenei dirua itzuliko die Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Herriko Antzokiko langileek hasi zuten grebaren ondorioz bertan behera gelditu ziren hainbat ikuskizun, horien artean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen apirilaren 12an egitekoa zuten emanaldia. Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, ikuskizun horretarako sarrerak erosi zituztenei dirua itzuliko diete. Sarrerak online erosi zituztenek "automatikoki" jasoko dute dirua erosketa egiteko erabili zuten txartelean. Sarrerak leihatilan erosi zituztenek berriz, Herriko Antzokira jo beharko dute egun hauetan:

- Uztailak 8, astelehena: 10:00etatik 14:00etara
- Uztailak 9, asteartea: 15:00etatik 19:00etara
- Uztailak 10, asteazkena: 10:00etatik 14:00etara

Edozein zalantza izanez gero, leihatila@herrikoantzokia.eus helbidera idatzi behar da.



Gomi eta Nola ezkondu dira

Gomi eta Nolaren ezkontza zibila izan zen zapatuan, eta galarik onenak jantzita agertu ziren bai ezkongaiak eta baita gonbidatuak ere. Taupada antzerki taldekoek hitzik gabeko performancea egin zuten zapatuan, baina hitzik gabe ere, asko esan zuten. Udaletxean ezkondu ziren Gomi eta Nola, eta gero, Kultur Kafean egin zuten banketea. Ezkontza bateko osagai guztiak izan zituen obrak. Argazki gehiago eta bideoa barren.eus



Zapatuan jokatuko dute bertan behera lagatako Idotorbeko Cross Country moto txapelketa

Anbulantzia medikalizaturik ez zegoela-eta bertan behera laga behar izan zuten joan zen zapatuan San Pedro jaien barruan egitekoa zuten Idotorbeko Cross Country moto txapelketa. Antolatzaileak oso haserre daude gertatutakoarekin, baina topatu dute proba jokatzeko data berria. Zapatuan jokatu dute 16:45etik aurrera. Era honetako kirol jardueretan bi anbulantzia egotera behartzen du araudiak, eta C motako anbulantzia izan behar da horietako bat, bizi-euskarri aurreratua (BEA) eskaintzera bideratutakoa. Urnabitza motoklubetik jakinarazi dutenez, enpresa pribatu bat kontratatu zuten anbulantzia zerbitzua emateko, eta bi anbulantzia bidali zituzten, baina bietako bat ere ez zen medikalizatu. Zaurituak garraiatzeko bakarrik zeuden prestatuta. Hori ikustean, kontratatutako enpresak jarri zuen medikuak baldintza horietan ez zegoela erantzukizuna hartzeko prest esan zien. Honela azaldu dute Urnabitzaok: "Anbulantzia medikalizatu batean dagoen material eta euskarririk gabe ezin zela probarik jokatu esan zigun medikuak. Bera ez zihola ardura hori bere gain hartzera. Baldintza horietan aurrera egitea erabakitzen bagenuen ardura gurea zenez, bertan behera lagatzea erabaki genuen. Haserre, oso haserre, kontratatutako enpresak bere partea bete ez zuelako, baina ez genuen beste aukerarik eduki.



Halaxe azaldu genien izena emanda zeuden 84 moto gidariei ere, eta erabat ulertu zuten gure egoera. Eta hori, Galiziatik, Frantziatik edota Nafarroatik etorritako pilotuak ere bazeudela. Eta, zer esan proba ikustera etorritakoez. Erabaki zaila izan zen, baina ez genuen beste aukerarik eduki. Pena izugarria eman zigun lagun askok lan handia egin zutelako dena prest egoteko". Anbulantzia enpresarekin gertaturikoa Euskadiko Motoziklismo Federazioko abokatuen eskuetan laga dutela gaineratu dute motoklubetik. "Ez dugu haien berri gehiago jakin nahi. Desengainu handia hartu dugu. Ezin genuen sinetsi gertatzen ari zitzaiguna", adierazi dute.

Futbol Eskolan izena emateko epea uztailaren 12an amaituko da

Zabalik dago C.D. Elgoibarren Futbol Eskolan izena emateko epea. 2014 eta 2016 urte bitartean jaiotako neska-mutilek eman dezakete izena, eta uztailaren 12a izango da horretarako azken eguna. Izen-ematea online egin behar da, eta Futbol Eskolan hasten direnek egin beharko dute, baina lehendik dabiltzanek jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi beharko dute, horiek ere online bidez. Informazio gehiagorako: 634 020 555 / cdekiolarloa@gmail.com.



Borja Rocha azkoitiarra da gizonezkoen Haundi taldeko entrenatzailea

Borja Rocha Azpitarte izango da aurrerantzean gizonezkoen Haundi taldeko entrenatzailea, Iosu Guineak lagatako lekua betetz. Azkoitiarrak herriko taldean, C.D. Anaitasunan, egin du orain arteko kirol ibilbide guztia. Orain, etapa berria hasiko du Azkaratez bestaldean. Azkoitiarrak Xuban Peña azpeitiarra izango du lagun aulkian, bigarren entrenatzaile moduan. Kirol koordinatzaile lanetan arituko den Ander Mugerza ere aurkeztu zuten Mintxetan eginiko aurkezpen ekitaldian (argazkian).

Rochak esan du ilusio handiarekin eta lanean hasteko gogoz datorrela. "Jendearen ilusioa apaldu dela sumatu dute zuzendaritzakoek, eta ilusioa berreskuratzeko



eta gazteenei taldearekiko ilusio hori pizteko eskatu didate".

Kartutxok irabazi du Futbol 7 txapelketa, bigarren urtez jarraian



Hamasei talde aritu dira lehian aurtengo Futbol 7 Txapelketan, lau taldetako lau multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek Champions txapelketa jokatu dute eta multzotako lehen sailkatzerik lortu ez zuten taldeek jokatu dute Conference txapelketa. Ekainaren 10ean hasi zuten txapelketa, eta ekainaren 27an jokatu zituzten bi txapelketetako finalak eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeak. Championseko hirugarren

sailkatua erabakitzeke neurketan Mendaro City eta Wonga taldeek jokatu zuten eta 3 eta 2 irabazi zuten mendarotarrek. Conferenceko finala jokatu zuten gero, eta Ugari taldea gailendu zen Los Vagas taldearen aurkako lehian. Championseko final handian, iaz lortutako tituluari eutsi zion Kartutxo taldeak. EGS talde beteranoa izan zuten aurkari jokalaririk gazte osatutako taldeak. Kartutxok 4-1 irabazi zuen finala.

3x3 txapelketa arrakastatsua

Saskibaloia kalera ateratzeko jardunaldia antolatu zuen Elgoibarko Saskibaloia taldeak zapaturako, baina eguraldi euritsuaren ondorioz aterpean, Olaizaga kiroldegian, aritu ziren. Herrikoez gainera, Mendaro, Deba, Eibar eta Bergarako taldeek ere eman zuten izena. Senior gizonetzkoen mailan Eñaut's taldea gailendu zen eta Euskal Stars taldea gazteen mailan, biak Elgoibarko jokalariz osatutako taldeak. Emakumezkoetan eibartarrez osatutako Katu Kale taldea izan zen irabazlea. Iaz moduan Kalebarren plazako kantxan jokatu ezin izanaren pena zuten antolatzaileek, baina osterantzean pozik dira txapelketan bizi izandako giroarekin. Arratsaldean Ellie Jensen eta Dani taldeek Maalan eman zuten kontzertuarekin izan zuen segida saskibaloia zaleen festak.



Jabi Muñozek irabazi du Bergoa xake txapelketa, partida bakar bat galdu gabe



Azken asteetan 26 xakelari aritu dira lehian I. Berkoa Xake Txapelketan, Mintxetan, eta Jabi Muñoz mendaroarra izan da txapelduna. Erakustaldia eman du gainera, zazpi partidetatik zazpirak irabazita. Bigarren postutik seigarren postura sailkatutakoek bost partida irabazi eta bi galdu dituzte, baina elkarren arteko lehien ostean, Anibal Fernandezentzat izan da bigarren postua eta Markel Kerexetarentzat hirugarrengoa. Xakean federatu gabekoen artean Eñaut Oiartzabal izan da onena, lau garaipen eta hiru porrotekin. Bederatzigarren egin du.




Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguelek irabazi dute San Miguel Rallysprinta

Zortzi urteko etenaren ostean, EME automobilismo kirol klubaren eskutik itzuli da XVI. San Miguel Rallysprinta, eta pozik daude antolatzaileak zapatuan Etxebarria eta Elgoibar artean jokatu zuten auto lasterketak eman zuenarekin. Izena emanda zeuden 72 autoetatik 68 irten ziren azkenean errepidera eta 54k lortu zuten lasterketa amaitzea, jokatu zituzten hiru txandak osatuz. Goizean euri asko egin zuen eta eguerditik aurrera gutxiago egin zuen arren, errepide bustian lehiatu ziren gidariak. Ikusle kopuruan ere izan zuen eragina eguraldiak, baina jarraitzaile sutsuenak gerturatu ziren ibilbideko bihurgune eta leku ikusgarrienetara.

Ikullu Razing taldeko Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguel izan ziren azkarrenak, Hyundai I20 R5 autoarekin. Bigarren postuan Hamaika eskuderiako Aitor Saizar eta Alazne Apalantza berriatuarrak sailkatu ziren, Peugeot 207 S2000 batekin. Podiumeko hirugarren koskara Ikullu Razing taldeko Iker Etxeberria eta Alain Agirre (BMW M3) igo ziren. Lehiatz harago, automobilismoan diharduten emakumeei ikusgarritasuna ematea izan da estreinakoz emakumeek antolatu duten rallysprinteko helburuetako bat. Hala, Etxebarrian egin zuten sari banaketan euskal errepideetan erreferente izan diren emakumeek hartu zuten parte, besteak beste, Domeka Verak,

Carros de Foc-era irteera, uztailaren 25etik 28ra

Carros de Foc (Pirinioak) ibilbide ezagunaren hegoaldeko zatia egiteko irteera antolatu dute Morkaikok eta Eibarko Klub Deportibok, uztailaren 25etik 28rako. Lau egunetako ibilbideak GPX fitxategiekin eta azalpen guztiekin *morkaiko.eus* webgunean ipini dituzte. Ventosa i Calvell, Estany Llong eta Josep Maria Blanc aterpeetan egingo dute lo, eta 272 eurokoa izango da bazkide federatuentzako prezioa (bazkide ez direnek 307 euro). Prezioaren barruan autobus bidaia, aterpetxeetako afaria, logela eta gosaria sartzen direla zehaztu dute. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa da federatuta egotea.





Ane Zapirainek eta Sandra Fernandezek. Horrez gain, probaren estreinako edizioan, 2004an, parte hartu zuten bi emakumeak omendu zituen EME eskuderiak: Karmele Ibarrola eta Ainara Gonzalez. Oroigarri bana eman zieten eta gero eurek banatu zizkieten sariak aurtengo irabazleei eta lehen sailkatuei. EME kirol taldekoek balorazio positiboa egin dute zapatukoaz eta publikoki eskerrak eman dizkiete parte-hartzaile guztiei, jakinarazpen eta arau guztiak errespetu osoz betetzeagatik bereziki. "Boluntario guztiei eta babesa eman diguten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Eta, nola ez, gure eskerrik beroenak ibilbidean batutako ikusleei eta Etxebarriko bizilagun guztiei, lasterketako orduetan zehar sortu zitezkeen ezustekoen aurrean emandako erantzunagatik. Azkenik, txalo handi bat eman nahi diogu Kastinparro Eskuderiako lagunarteari, lasterketa antolatzeke emandako laguntzagatik". 🏆 Ander Zelaia / Mikel Askasibar

Irailaren 28an jokatu dute Debabarreneko raida



Debabarreneko Orientazio Raidaren zortzigarren edizioa izango dena irailaren 28an jokatu dutela aurreratu dute Morkaikoren Raid Taldeko kideek. Iazkoa moduan, aurtengoa ere Elgoibarren jokatu dute (aurreko biak Deban egin zituzten). Azken urteetan moduan, bi modalitatetan parte hartzeko aukera izango da, Abentura eta Familia raidetan. Lehenetik bikoteka osatu beharko da eta zazpi orduko muga izango dute parte-hartzaileek proba bukatzeko. Familia Raida, aldiz, bi eta bost pertsona arteko taldeetan jokatu dute (horietatik bat, gutxienez, adinez nagusikoa), eta proba bereziak osatu beharko dituzte bidean, slacklinea edo orientazio jokoak, besteak beste. Informazio osoagoa eta izen-emateak, ondorengo web orrian: debabarrenaraid.wordpress.com

LANA

Eskaintza

Bi ume ikastolatik jaso eta zaintzeko lagun bat behar dugu. Astelehenetik ostegunera, 16:15etik 17:30era izango litzateke, irailetik ekainera. Euskaraz aritzeko gaitasuna baloratuko da.
669 311 611

Eskaerak

Pertsona arduratsua, lanerako prest. Garbiketa lanak egingo nituzte, etxeetan, bulegoetan nahiz lantegietan. Esperientzia handia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Arduratsua naiz eta esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest nago. **674 810 717**

Adinekoak zaintzeko edo bulego, lantegi nahiz etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia handia. **674 535 912**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest nago. **643 711 687**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka nahiz etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat. Berehala hasteko prest. **641 756 213**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Etxeko langile moduan, orduka, gauez nahiz asteburuetan. **632 229 972**

Lan bila nabil. Orduka edo jardun osora lan egiteko prest nago. **631 892 149**

Gazte euskalduna udan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. **688 651 030**

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).
Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure etxebizitza saldu nahi dugu. Urteetan etxejabe guztiok ekarpen berezia egin dugu komunitateko kontuan, higiezia birgaitzeko obra bat egiteko. Jakin nahi nuke nire jabetzaren salmentagatik orain arte jarritako zenbateko horren banakako likidazioa eska diezaiokekan administratzaileari.

Finken administratzaileak ezin dio likidazio indibidualik egin etxebizitza bat saltzen edo erosten duen jabe bakoitzari; izan ere, urteko batzar orokorrean aurkezten dira likidazioak, eta han onartu edo baztertzen dira. Hortaz, pertsona batek jabetza bat saltzen duen bakoitzean, ez da banakako likidaziorik egin behar. Pisua edo lokala jabetza zorduna edo hartzekoduna da, eta erosleak erantzun edo onura aterako dio salmentaren uanean dagoen saldoari. Era berean, jabe berriak egin nahi diren obren ondoriozko etorkizuneko derramak ere ordaindu beharko ditu. Erosleak izango du kasu horretan erantzukizuna, jabe berriak. Legeak adierazi bezala, derramak uanean uneko jabearen esku geratzen dira. Legea hobekuntza-obrei buruzkoa bada ere, ulertu behar da ohiko edo ezohiko gainerako derramei ere badagokiela.

ONDORIOA: Ez dago diru hori itzultzeko betebeharririk, salerosketa bat dagoen bakoitzean. Jabe berriak onura edo kalte egiten dio pisu edo lokalaren egoerari; izan ere, diru kopuru bat alde izan dezakeen bezala, aurrekontu arruntan kontrakoa ere gerta daiteke.



AHOZKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.
eus e-postara edo 📞 **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **June!** Patxo potolo bat etxekoan partez, uztailearen 2an 4 urte egin zenituelako.



Zorionak, **Lara**, gaur 10 urte egin dituzulako, eta, zorionak, **Daniel**, abuztuaren 7an 12 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako guztion partez.



Zorionak, **Julen** eta **amama**, astelehenean eta atzo, urteak bete zenituztelako. Primeran pasatu genuen. Muxu handi bat Lea, Sara eta etxeko denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



KONTSULTATEGIA

*Nola eragiten die
udako beroak gure hortzei?*

Udan, eguzki-izpien eta temperatura altuen eraginpean egoten gara, ondorioz, gure organismoak ur gehiago galtzen du.



Ahoko deshidratazio horren ondorioz nabarienetako bat ahoko lehortsuna da, listu-mailak muniztearekin lotuta. Listu-fluxua munizteak txantxarra eragiten duten bakterioak ugaritzea eta hortzoietan arazoak eragiten dituen samoa sortzea sustatzen du. Listu faltari aurre egiteko, beharrezkoa da egunean zehar ura aldizka edatea, gure ahoa hidratatuta mantentzeko eta ahoko mukosen lehortsunaren ondorioak arintzeko.

Udako hila beteetan, paziente askok lasaitzen dituzte eskuilatzeako ohiturak eta muniztu egiten dute aho-hortzen higieena. Horrez gain, produktu azukretsuek gehiago kontsumitzeak eta listu-mailak munizteak baldintza egokiak sortzen dituzte bakterioak ahoan ugaltzeko eta aho-hortzetako patologia (txantxarra edo gingibitisa) agertzeko arriskua handitzeko.

Gogorarazi nahi dugu udan gure azala eguzki-izpietatik babesten dugun bezala, beharrezkoa dela gure hortzak ere babestea. Horretarako, garrantzitsua da gure hortz-higieena zaintzea, elikadura osasungarria lehenestea, ur asko edatea eta opor aurretik zure konfiantzazko dentista bisitatzea.

ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

5 BARIKUA

16:30-20:10 Odol ateratzeak, Mendaron, ikastolan. Txanda hartzeko bi bide daude: 634 073 498 telefono zenbakira deituta edota gotatanta.eus webgunean sartuta.

6 ZAPATUA

16:45 Cross Country moto txapelketa, Idotorben.

8 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako hausnarketa saioa: 'Wendiren sindromea'. Loredi Salegik gidatuko du saioa, ele bitan. Lilan izango da eta ez da izenik eman behar.

9 MARTITZENA

10:30 Udarako osasun zaintza tailerra. Osakidetzak, Ongizate Sailak eta Jubilatuen Biltokiak antolatuta. Jubilatuen Biltokian.

11 EGUENA

10:00 Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Erreserba egin behar da: 657 794 677 / info@begi-bistan.com

12 BARIKUA

16:00 Odol ateratzeak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.
22:00 Ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten.

Uztailaren 11n, 12an eta 13an garagardo azoka solidarioa egingo dute Mendaron. Asteko gai moduan landu dugu gaia barruko orrietan eta han duzue egitarau osoa.



OHE-IZARETAN ESKAINTZA ZABALA

%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera
 (neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)

%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera

Ez galdu aukera paregabe hau! Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

IRAILEAN ere GOZATU ATXUTXIREKIN!

 **Irailaren 2tik 5era** 

IRAILEKO TXOKOAK (09:00-13:00)..... 64 €/ 58 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek)
GOIZ TXOKO ETA IRAILEKO TXOKOAK (08:00-13:00)75 €/ 68 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Izena emateko epea: Uztailaren 21a
OHARRA: Taldeak osatzeko gutxienez zortzi hurrek eman beharko dute izena.



Informazio gehiago: Amaia Lasagabaster
 Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea - Aita Agirre kulturunea, 3, 3. ezk.
 **943 741 746**  atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

Aire libreko zinea
(Kalegoen plazan)



'El método Williams'
5 barikua



'Momiak'
6 zapatua

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

UZTAILA

5 BARIKUA	Yudego
6 ZAPATUA	Barrenetxea
7 DOMEKA	Barrenetxea
8 ASTELEHENA	Barrenetxea
9 MARTITZENA	■ Soto (Lehen, Ibañez)
10 EGUAZTENA	Garitaonandia
11 EGUENA	Arriola
12 BARIKUA	Garitaonandia

2024 urte guztian, gauzez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza, 4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		

Eta, Debabarrenean zer?

Queen gaua, Deban

Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak eta Debako Musika Bandak Queenen omenezko kontzertua emango dute, bihar, hilak 6, Deban. Zumardiako karpan izango da kontzertua, 22:30ean hasita.






Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



Goldetu prezioak eta gustura erantzun dizugu.

Fadek

ileapaindegia

Abuztuan, San Bartolome kaleko 17
helbidera aldatuko gara



Garazi
Garate
Diez

5 urte, Elgoibar



"Uda alaia"



Laia
Jurado
Bastida

6 urte, Elgoibar



"Udaberria"

BANDERAK

Bandera hauek zein herrialdetakoak diren ba al dakizu?



K _ _ _ _ _



I _ _ _ _ _



P _ _ _ _ _



K _ _ _



MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri dagokion eragiketa ikurra (+ / -) hutsune bakoitzean:

$$25 \dots 4 \dots 2 = 31$$

$$77 \dots 11 \dots 2 = 90$$

$$99 \dots 2 \dots 4 = 93$$

$$13 \dots 4 \dots 3 = 20$$

$$8 \dots 1 \dots 6 = 15$$

$$1 \dots 82 \dots 1 = 82$$

$$50 \dots 50 \dots 2 = 2$$

$$53 \dots 7 \dots 4 = 56$$

JEROGLIKOAK



Non dago Maren?

_ _ _ _ _



Metal bat...

_ _ _ _ _



Zer falta zaio oheari?

_ _ _ _ _

Erantzunak: _____

Jeroglifikoak
ETXEAN
BURDIN
IZARA

77 + 11 + 2 = 90
13 - 4 + 3 = 20
1 + 82 - 1 = 82
53 - 17 - 4 = 56

25 + 4 - 2 = 31
99 - 2 - 4 = 93
8 + 1 + 6 = 15
50 - 50 + 2 = 2

Banderak:
KANADA
IRLANDA
PORTUGAL
KUBA

GREENMIÑO GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta lanpostak
Ataak, leihoak, pertsiak, barandilak,
eltxo-sareak eta toloak jartzen ditugu.

662 234 609

odrleihoak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20890 SORALUZE

AROZTEGIA

Biena, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

f

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA



Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutze-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA



Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan
agertzearen onurak!

 **943 743 704**
 **688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilero

12
aldiriz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak
eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron
erakusleho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure
proiektua finantzatzan.